

Prentsa-oharra
Martxoak 8 / Bilbo Feminista Saretzen

Mileiren Gobernuak iragarri du feminizidioaren figura ezabatuko duela Zigor Kodetik.

Trump arremete contra el colectivo LGTBIQ+, niega la existencia de las personas trans y aprueba un decreto para que las mujeres trans no participen en el deporte femenino.

Trumpek LGTBIQ+ kolektiboaren aurka egin du, trans pertsonen existentzia ukatu du eta emakume transek emakumeen kirolean parte har ez dezaten dekretu bat onartu du.

Afganistanek genero-apartheid lege bat onartu du, emakumeei jendaurrean hitz egitea debekatzen diena.

Giorgia Meloni debekatu du bikote homosexualen seme-alabak Italian inskribatzea.

Poloniako Auzitegi Konstituzionalak abortua debekatu du ia egoera guztietan.

Hungariak eskoletan homosexualitateaz hitz egitea debekatu du.

Berdintasunaren aldeko borroka instrumentalizatzea politika arrazistak sustatzeko helburuarekin estrategia bezala hedatzen ari da herrialdeetan, esaterako, Frantzia, Italian, Herbehereetan edo Espainian.

Une politiko eta sozial zail batean gaude, modu zuzen eta mehatxari batean interpelatzen gaituena. Faxismoaren, eskuin muturraren eta populismo autoritarioaren gorakada bat bizitzen ari gara, kapitalismo neoliberal basatienarekin aliantzan ari dena. Eta erreakzio heteropatriarkal bortitz baten eskutik dator, feminismoaren, haren lorpenen, emakumeen eskubideen eta beste borroka sozial askoren aurka, LGTBIQ+ komunitatearen aurka adibidez.

Gure askatasuna, gure gorputzen eta bizitzen gaineko burujabetza mehatxupean daude, sistema heteropatriarkal eta kapitalistarentzat oztopo bat delako, eta zalantzan jartzen dituelako gizon zuri burgesen pribilegioak. Erasotzen badigute, ondo ari garelako da. Gure iraultza feminista proiektu matxista, neoliberal, arrazista, kolonialista, kapazitista, transfobo, euskarafobo, supremazista eta ekozidaren aurkako inpu gnazioa da.

Gauza asko aldatu dira, gauza asko aldatu ditugu, baina gure bizitzak eta gorputzak borrokarako lurralde dira oraindik. Izan ere, diskurtso faxistak eta eskuin muturrekoak toki guztietan sartzen ari da; ez soilik instituzioetan, baita ere kalean, gure auzoetan, gure lantokietan...

Une politiko eta sozial zailean gaude, eta beldur handia ematen du. Eta guk ere, feministok, badugu. Baina beldurra kontrol sozialerako tresna bat da: geldiarazi egiten gaitu, komunitateak txikitzen ditu eta indibidualistago bihurtzen gaitu ‘sálvese quien pueda’ logikaren menpe. Eta horrela nahi gaituzte faxistek: bakartuta, desmobilizatuta, itxaropenik gabe. Baina azaroaren 25ean argi esan genuen: beldurra eta lotsa alde z aldatzen ari dira!



Horregatik, aurten, faxismoaren gorakadaren testuinguru honetan, mugimendu feminista kalera atera gara ezetz esatera, guri beldurrak ez gaituela geldiaraziko, eta ausardia feminista aldarrikatzera. Ausardia beldurra gainditzeko, isiltasuna hausteko eta gu atzera egitea nahi duten nostalgikoei aurre egiteko. Inposatu nahi diguten beldurraren aurrean, feministoi ahotsa altxatzea eta geure burua adieraztea dagokigu. Borroka feministaz harro gaude, zalantzarik gabe antifaxista eta antikapitalista den borroka!

Eta martxoaren 8an, hori aldarrikatzeko kaleak masiboki hartzera goaz. Feminismoa ez da erresistentzia bakarrik; bizitzeko modu bat ere bada. Amets egitea eta aukera berriak eraikitzea da, moldeak haustea eta eredu berriak asmatzea. Borroka feministak hamarkadak daramatza jendearen bizitza aldatzen, horretan jarraitzeko ausardia izan dezagun!

Horregatik, martxoaren 8an, arratsaldeko 18:00etan Jesusen Bihotza plazatik irtengo gara, eta mobilizazio jendetsua izatea espero dugu. Beti da garrantzitsua, baina une honek inoiz baino gehiago eskatzen du. Batu gaitzen kaleetan etxeko langileak, migratzaileak, pobreak, desjabetuak, ikasleak lesbianak, bollerak, pentsiodunak, transak, sexu-salerosketaren eta -esplotazioaren biktimak... Faxismoak jazartzen gaituenok, haren aurka lehen lerroan izango gara!

Gainera, Bilboko auzoetan antolatuta gaude, hauek baitira gure hiriaren indarra. Hainbat zutabe antolatu ditugu:

- Bat Errekaldetik aterako da 17:30ean, Amezolako biribilgunean Irala eta Miribillako emakumeak batuko ditu, eta Indautxukoek 17:45ean bat egingo dute Indautxu plazan.
- Beste bat 17:00etan aterako da Santutxutik Otxarkoagakoekin batera, 17:30ean Alde Zaharrarekin elkartuko da San Anton zubian, Bilbi plazatik igaroko da 17:40an eta 17:45ean SanFrantziskoko Mariaren Bihotza plazatik pasatuko da.
- Beste zutabe bat ere antolatu dugu 16:30ean Zurbaranbarritik aterako dena eta Uribarrikoekin Traukon batuko dena 17:00etan.
- Eta azkenik, beste bat Deustutik aterako da Done Petri plazatik 17:45ean.

Dena aldatuko duen indar hori sor dezagun! Eta horretarako, mugimendu feminista indartsu, kritiko, antolatu bat behar dugu kalean; beraz, lagunak, animatzen zaituztegu martxoaren 8ko mobilizazioan ez geratzeko, hurbil zaitezte gure asanbladetara, batu zaitezte mugimendu feministara! Iraultza feminista gure antolakuntzatik hasten da!

Gora borroka antifaxista! Gora borroka feminista!

